

**2024KO OTSAILAREN 14KO 109. ALKATEAREN EBAZPENA, ZUZENTZEN  
DUENA OTSAILAREN 6KO 84/2024 EBAZPENEAN ATZEMANDAKO AKATSA.**

**18372R ESPEDIENTEA.**

Lesakako Udaleko alkateak emandako 84/2024 ebazpenaren bidez Lesakako Udaleko zerbitzu anitzetako enplegatua/basozaina lanpostua (C maila) onartutako izangaien behin betiko zerrenda onartu zen, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesurako lanpostu hutsen deialdia, abenduaren 28ko 20/2021 Foru Legean, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoan, xedatutakoaren arabera:

**-ONARTUAK:**

1.-***4775**
2.-***6168**
3.-***7461**
4.-***8029**
5.-***5461**
6.-***6707**
7.-***7214**
8.-***3730**

**BAZTERTUAK:**

Inor ere ez.

Ondoren ikusi da \*\*\*6707\*\* zenbaki duen izangaiak ez duela ordaindu azterketa eskubideengatik eta espedientea formalizatzegatik ordaindu beharreko tasa (nahiz eta eskabidean ordaindua dela adierazi).

Kontuan hartuz oinarrien arabera azterketa eskubideen tasa ordaintzen ez bada, izangaia baztertu egingen dela.

Kontuan hartuz lehen proba otsailaren 20an izanen dela; azterketa-data atzeratuta hirugarrenei edo, deialdian parte hartzeko eskubidea aitortuz gero, interesdunari berari kalterik ez eragiteko:

**EBATZI DUT:**

1.) 84/2024 ebazpena zuzentzea eta \*\*\*6707\*\* zenbaki duen izangaiari baztertua uztea.

2.) \*\*\*6707\*\* zenbaki duen izangaiari erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badu, zuzentzeko hamar egun baldioduneko epea ematea.

3.) Azterketa egin baino lehen ez badu erreklamaziorik aurkeztu edo akatsa zuzendu, \*\*\*6707\*\* zenbaki duen izangaiari baimena ematea otsailaren 20an ezarritako proba egiteko. Hala ere, izangaia deialditik kanpo geratzen bada, ez da kalifikatuko azterketa. Kasu horretan, ariketa egin gabekotzat joko da.

4.) Ebazpena hau \*\*\*6707\*\* zenbaki duen izangaiari jakinaraztea eta Lesakako Udaleko web orrian eta atariko deialdiaren web fitxan argitaratzeko agindua ematea.

ALKATEA,  
Ladis Satrustegui Alzugaray.

IDAZKARIA,  
M. Jose Larrayoz Ariztegui.

44561288F  
LADIS  
SATRUSTEGUI  
(R: P3115200B)

Firmado digitalmente  
por 44561288F LADIS  
SATRUSTEGUI (R:  
P3115200B)  
Fecha: 2024.02.14  
13:58:16 +01'00'

18210359V  
MARI JOSE  
LARRAYOZ (R:  
P3115200B)

Digitalki sinatuta  
norenandik:  
18210359V MARI  
JOSE LARRAYOZ (R:  
P3115200B)  
Data: 2024.02.14  
14:10:35 +01'00'